



**Espediente zk./Nº Expediente:** 2021NPOL0004 **Erreg. data/Fecha Reg:**  
**Erreg. zk. / Nº Registro:** 000000  
**Gaia/Asunto:** DIRULAGUNTZA ITZULKETA-2020 (3.1 Lerroa: Ikastetxeak) BIZARAIN-BH  
**Eskatzailea/Solicitante:** BIZARAIN IKASTETXEA-BH **NAN(IFK)/DNI(NIF):** S4833001C  
**Kokalekua/Emplazamiento:** SAN MARKO KALEA SN, (Bizarain)

### DEKRETUA

Legesak eman dizkidan eskumenez baliatuta, ondoko dekretua eman dut:

### DECRETO

En uso de las atribuciones que me confiere la Ley vengo a dictar el siguiente decreto:

### AURREKARIAK

#### DEKRETU PROPOSAMENA.-

Alkateak 2019ko azaroaren 19ko datarekin, Errenteriako Udalak 2020 urtean dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak onartu zituen.

2019ko azaroaren 26an, Hezkuntza azpisaileko Zinegotzi Delegatuak emandako Ebazpenaren bidez egin zen 2020 urteko hezkuntza arloko programetarako dirulaguntzak emateko urteroko deialdia. (GAO 2019/12/24). Deialdi horrek, besteak beste, ondorengo diru-laguntza lerroa jasotzen du: 3.1 Ikastetxeak.

Aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren eta dagokion prozedura jarraitu ondoren, 2020eko ekainaren 5ean Hezkuntzako Zinegotzi Delegatuak emandako 1105 zikiko. ebazpenaren bidez, erabaki zen honako ikastetxeari honako dirulaguntza ematea:

**IKASTETXEA / CENTRO ESCOLAR**

**BIZARAIN IKASTETXEA-BH**

Era berean ere, aipatutako ebazpenean erabaki zen emandako dirulaguntzaren kopuruaren %60a ordaintzea, hau da, 1.843,58 €. Eta baldintzatuz beste %40a ordainduko zela egindako gastuaren justifikazio dokumentuak aurkeztu ondoren, beti

### ANTECEDENTES

#### PROPUESTA DE DECRETO.-

Con fecha 19 de noviembre de 2019, la Alcaldesa aprobó las bases generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2020.

Por Resolución de la Concejala Delegada de Educación, de 26 de noviembre de 2019, se realizó la convocatoria anual para la concesión de subvenciones a programas de educación para el año 2020. (BOG 24/12/2019). Dicha convocatoria contiene, entre otras, la siguiente línea de subvención: 3.1 Centros escolares.

Tras analizar las solicitudes presentadas, y tras el correspondiente procedimiento al respecto, mediante Resolución n.º 1105 de la Concejala Delegada de Educación de fecha 5 de junio de 2020, se acordó conceder subvención, al siguiente centro escolar y por el siguiente importe:

**IFK / CIF**

**S4833001C**

**KOPURUA /  
IMPORTE**

**3.072,64 €**

Igualmente, en la mencionada resolución se acordó proceder al abono del 60% del mencionado importe, es decir, 1.843,58 €, condicionando el abono del restante 40% a la presentación de la documentación justificativa del gasto realizado,



ere 2021eko urtarrilaren 31a baino lehen, deialdi hau arautzen duten oinarri espezifikoaren arabera.

Aipatutako likastetxeak, epe barruan aurkeztu zuen emandako dirulaguntzaren justifikaziorako dokumentazioa.

2021eko martxoaren 26an Hezkuntza eta Gazteriako teknikariak egindako txostenean, adierazten da egindako programazio eta gastuari dagokion aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, emandako diru-kopurutik ordaindutako %60a baino gutxiago gastatu dutela. Eta horren arabera Udalarik honako diru-kopurua itzultzea dagokiola;

antes del 31 de enero de 2021, de conformidad con lo establecido en las bases específicas reguladoras de la presente convocatoria.

El mencionado centro escolar, presenta dentro de plazo la documentación justificativa de la subvención obtenida.

En informe emitido el 26 de marzo de 2021, el técnico de Educación y Juventud Iñaki Otamendi, indica que tras analizar la documentación presentada justificativa del gasto y la programación realizada, se observa que el gasto realizado ha sido menor a la cuantía abonada inicialmente en concepto del 60% del importe total concedido, por lo que procede el reintegro del siguiente importe al Ayuntamiento:

**IKASTETXEAREN IZENA/ Nombre del Centro escolar**

**ITZULI BEHARRKO KOPURUA/ IMPORTE A DEVOLVER**

**BIARAIN IKASTETXEA-BH**

**76,98 €**

**MOTIBAZIOA**

**MOTIVACIÓN**

I.- Errenteriako udalak diru-laguntzak ematea arautzeko 2020ko oinarri orokorretan ezarrita dator, (12.oinarria, j. atalean) elkartearen betebeharrak bat dela "Diru-laguntzak arautzen dituen udal ordenantzan aurreikusitako kasuetan jasotako fondoak itzultzea".

I.- Las bases reguladoras generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2020 establece (base 12ª apartado j) que una de las obligaciones de las asociaciones beneficiarias será "Reintegrar los fondos percibidos en los supuestos previstos en la ordenanza municipal reguladora de las subvenciones"

13.oinarriak dioenez, Jasotako diru-kopuruak itzuli eta berandutze-interesak exijituko dira diru-laguntza ordaindu denetik, itzulketaren jatorria adosten den datara arte, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak (37. artikuluan) eta haren garapenerako erregelamenduak aurreikusitako egoeraren bat gertatuz gero, baita oinarri orokor hauetan edota deialdian jasotakoa ez betetze kasuetan ere

La base 13ª, por su parte, dispone que "Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento del pago de la subvención, hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando concurra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 37 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo, así como por incumplimiento de lo dispuesto en estas bases generales o en la convocatoria"

II.- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak (19.3

II.- Tanto la Ley General de Subvenciones (artículo



artikulu) nahiz Errenteriako Udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantzak (2015eko abuztuaren 10eko GAO) —6. art.— ezartzen dute dirulaguntzaren zenbatekoak ez duela gaindituko —bakarrik edo beste laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batuta— diruz lagundutako jardueraren kostua.

Kostu hori gaintitzen badu, gehiegi jasotakoa itzuli beharko da (Legearen 37.3 art., Lege horren Erregelamenduaren -uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartua- 32.2 art. eta Ordenantzaren 26.1 art.).

2021eko martxoaren 29an, korreo elektronikoa bidali genion aipatutako ikastetxeari egoera honen informazioa helaraziz, eta zein diru-kopurua itzultzea zegokien.

Era berean ere, debora pasa ondoren eta kontuan izanda aipatutako diru-kopurua itzuli dutelaren egiaztagiririk ez zegoenez, 2021eko apirilaren 30ean Hezkuntza zinegotzi delegatuak 2021eko apirilaren 28an emandako ebazpenaren jakinarazpena bidali zitzaion. Bertan adierazten zen aipatutako diru-kopurua itzultzeko espedientea hasita dagoela.

2021eko maiatzaren 3an, Bizarain-BH ikastetxetik posta elektronikoa bidali digute 76,98 €ko diru kopurua udaleko kontu korrentean itzuli dutelaren egiaztagiria bidaliz.

Hori guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta udal aholkulari juridikoak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

## ERABAKI DUT

1.- **EBAZTEA** nahitaez itzuli behar dela 2020ko ekainaren 5eko 1105 zenbakiko Hezkuntzako Zinegotziaren Dekretu bidez BIZARAIN-BH

19.3) como la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria (B.O.G. de 10 de agosto de 2015) -art. 6- establecen que el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

De producirse dicho exceso, debe procederse al reintegro del exceso obtenido (art. 37.3 de la Ley, art. 32.2 del Reglamento de dicha Ley, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio y art. 26.1 de la Ordenanza).

Con fecha 29 de marzo de 2021, se remitió un correo electrónico al centro escolar informando de la situación y de la cuantía que correspondía devolver.

Igualmente, transcurrido el tiempo sin tener constancia de la realización del ingreso de la mencionada cuantía, con fecha 30 de abril de 2021 se efectuó la notificación de la resolución de la concejala delegada de Educación, de fecha 28 de abril de 2021, de inicio de expediente de reintegro mencionado.

Con fecha 3 de mayo de 2021, mediante correo electrónico remitido desde el centro escolar Bizarain-BH, se remite el justificante de haber efectuado el reintegro requerido, por importe de 76,98 €, en la cuenta del Ayuntamiento.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de la delegación efectuada por la Alcaldesa de este Ayuntamiento y con la conformidad dada por el asesor jurídico municipal a la propuesta de decreto que consta en el expediente.

## RESUELVO

1.- **DECLARAR** la obligación de reintegro de la subvención concedida por Decreto n.º 1105, de fecha 5 de junio de 2020 de la Delegada de Educación, al



ikastetxeari emandako dirulaguntza.

centro escolar BIZARAIN-BH.

Itzulketa kopurua **76,98 €tako** da (ez du, bestalde, gainontzeko kopurua kobratuko).

El importe a reintegrar asciende a **76,98 €** (además de no percibir la cuantía que resta por abonar).

2.- Adieraztea elkarte honek, bere kabuz 20201eko apirilaren 15ean, Udalak aurretik emandako **76,98 €tako** kopurua itzuli diola Udalari.

2.-Indicar que dicho centro escolar, con fecha 15 de abril de 2021, ha realizado ya dicha devolución al Ayuntamiento del anticipo cobrado de **76,98 €**.

3.- Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.

3.- Notificar la presente resolución al interesado.

Erreterian, sinaduran agertzen den datan

Erreteria, en la fecha de la firma

Hezkuntzako zinegotzi delegatua / Concejala delegada de Educación

Stua./Fdo.: Itziar OSTOLAZA GALDOS



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUa5825136-ef35-4748-966b-71027d46b8be**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>**

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>**